

IÑAKI EIZMENDI ARSUAGA

Gizarte Hezitzailea.

Lasarte-Orian jaioa 1973an.

18 urterekin hezitzaile izateko bideari ekin nion. Aisialdiko begirale ikastaroa egin nuen eta geroztik Aisialdiko Zuzendari ikastaroa eta Animazio Soziokulturaleko ikastaroak egin nituen. Gizarte Hezitzaile ikasketak egitea izan zen hurrengo urratsa.

Ikasketekin batera lan ibilbideari ere ekin nion. Aisialdiko begirale eta zuzendari izan nintzen hainbat udalekuetan eta 21 urterekin Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartekeo dinamizatzaile moduan hasi nintzen. 12 urte eman nituen dinamizatzaile lanetan.

Denbora horretan hainbat aisialdi jardueren kudeaketaren ardura izan nuen, eta beti euskararen erabilera indartzea izan zen ardatz nagusia.

2007an, *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektuko lantalde-buru izan nintzen. Haurren eta gazteen euskararen erabilera sustatzerakoan hezitzaileek izan beharreko jarrera eta hezitzaileentzat hainbat tresna garatu genituen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean argitaratu genuen urte horretan.

Urte horretan bertan euskara elkartekeo dinamizazio lanak utzi eta bide berri bati ekin nion: *ebete hizkuntza-zerbitzuak* sortu nuen. *ebeteren* bidez haurren eta gazteen euskararen erabileran eragiteko tresnak eta baliabideak garatzea eta frogatzea bilatzen dut. Une horretan hasi ekin nion euskararen transmisioaren gaia garatzeari.

Euskararen transmisioa dela eta irakasleekin eta gurasoekin hainbat lanetan aritzen naiz: hitzaldiak, ikastaroak, proiektuetan aholkulari moduan aritzea... Besteak beste, 4 guraso batzorderekin lanean ibili naiz, eta gutxienez 20 ikastetxetan abian dira irakasleek gurasoei begira prestatutako plangintzak. Gainera, urtero hainbat eta hainbat hitzaldi ematen ditut gurasoentzat hizkuntza transmisioaren inguruan.

ebete hizkuntza-zerbitzuen bidez, bestalde, hainbat jardunalditan parte hartu dut irakasle moduan eta hainbat argitalpenetan ere idatzi dut: Udaltop, Hik Hasiko Udako Jardunaldiak, EHUko Udako ikastaroak, Ikastolen aldizkaria, Entitateak euskalduntzeko metodologiaren garapena (Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa), eta abar.

Aurrerantzean ere haurren eta gazteen euskararen erabileran eragiteko estrategiak eta tresnak garatzen, frogatzen eta hedatzen jarraitzeko asmoz jarraituko dut lanean.



Hitzaldia:

aur eta gazteen hizkuntza-sozializazioa:

gurasoengan eragitetik gurasoak eragile izatera